

# Lege Organiko 4/2015 eta delituen biktimen estatutu berria

Paula OYONO

**AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Zioen azalpena.-III. Legearen edukia: printzipio orokorrak.-IV. Kritikak eta oharrak.-Bibliografia.**

## I. Sarrera

Lan honetan azalduko da Estatutu honen Zioen azalpenean adierazten diren ezaugarri nagusiak eta printzipio orokorrak. Baita Estatutuari egin dioten kritika nagusietakoak ere.

2014. urteko abuztuaren 8an Espainiako Gobernuak onartu zuen Delituen Biktimen Estatutu berriaren Lege-Proiektua abian jartzea. Legea onartua izan da 2015eko apirilaren 27an, eta legearen azkeneko 6. Xedapenean dioenez, urriaren 28an sartuko da indarrean, hau da, onartua izan denetik sei hilabetera. Legeriari buruzko informazio publiko osoa aurkitu daiteke Ministerioaren web orrian eta Estatutu osa ikusteko jo daiteke helbide honetara: <http://www.boe.es/boe/dias/2015/04/28/pdfs/BOE-A-2015-4606.pdf>

Biktimen Estatutu berri hau oinarritzen da Europa Batasuneko biktimei laguntza eta babes-minimoa ematen dien irailaren 25eko 2012/29 Zuzentarauan, 2011/36 gizakien salerosketari buruzko Zuzentarauan, eta adingabeen sexu-abusu, sexu-esplotazio eta adingabeen pornografiari buruzko Zuzentarauan eta hauen transposizioetan. Lege berri hau aplikatu ahal izateko, betiere, Zuzentaru Europarrek zehaztutako irizpideak kontuan hartu behar dira.

Estatutua orokorrean oinarriturik dago irailaren 25eko 2012ko delituen biktimen eskubide, laguntza eta segurtasunerako gutxieneko arauari buruzko Europar Batasuneko Parlamentuaren eta Europar Kontseiluaren Zuzentaruaren egitasmoen nondik norako nagusietan. Hala ere testuaren zioen azalpenean argitzen da hartu nahi direla 2012/29 Zuzentaruaren baino neurri zabalagoak.

Lege berri honetan jasotzen dira trafiko delituen biktimak, jende ugari kaltetuta izan den delituetako biktimak eta bestelako delituen biktimak, eta zehazten du 2012/29 Zuzentaruaren ez bezala biktima hauekiko arreta-aurreneurriak hartzeko konpromisoa hartu behar dela. Biktima guztien eskubideak aldarrikatzen ditu era guztietako biktimizazio prozesuak; lehen mailakoa naiz bigarren mailakoa saihesteko asmoarekin.

Azpimarratzekoa da legegileak biktimentzako lege-lerruneko arau bat egiten duen lehen aldia dela. Biktimen Estatutuaren sorrera eskertzekoa dela diote sektoreek, beti akusatua babesari garrantzi handiagoa ematen zaiolako biktimak bigarren maila batean uzten. Beti zigor-kodearen aplikazioa eta biktimen mendekuaren eztabaida ematen da gai honetan, eta lehen aldia da egiten dela biktima guztientzako lege bat.

## II. Zioen azalpena

4/2015 lege berri honek hogeita hamabost artikulua ditu, bi Xedapen gehigarri, Xedapen iragankor bat, Xedapen azkentzaile bat, eta sei azken Xedapen.

Lege honen sorreraren helburua da Botere Publikoetatik biktimentzako Estatutu juridiko bat egitea. Estatutuaren helburua oinarritzen da biktimei ahal den arreta zabalena ematean, bai arreta juridikoa naiz arreta soziala. Biktimek jasandako kalteak zigor-arloko

prozesuaren baitan konpondu ez ezik, baita arreta eman nahi zaie eragindako bestelako kalte moralei ere. Beraz arreta integral bat eman nahi zaie biktimei kontuan izanda bai zigor-prozesuaren barruko eskubideak eta bai zigor-prozesuaren kanpoko eskubideak.

Helburu horri aurre egin ahal izateko lege-testu bakar batean jasotzen dira biktimen eskubideen katalogoa eta gizarteak gai honen inguruan egindako eskakizunak. Honekin Espainiar Estatutuak jasotzen du europar araudia bete barne araudian, eta biktimen duintasuna aitortzen du euren behar material eta moralak defendatzen eta babesten.

Estatutuaren lege aurrekaria 2001eko martxoaren 15eko 2001/220 biktimari dagokion zigor-arloko prozesuari buruzko esparru-erabakia da. Esparru-erabaki hau zigor-arloko prozesuan biktimen eskubideak, babesa eta kalte-ordainak aitortzen zituen lehen testua izan zen. Lege hau oso garrantzitsua izan zen, eta 2009ko Europar Batzordearen txostenarekin batera agerian utzi zuen Europar Batasuneko Estatu bakar bat ere ez bere legedian biktimen eskubideak jasotzen ez zituela. Beraz lege honek azpimarratu zuen lege esparru horren beharra.

Espainiako Estatuari dagokionez, Europar Batzordearen txostenak azpimarratzen du biktimen eskubideak bermaturik daudela Espainiar lege-testuetan, baina eskubide horien gehiena zigor-arloko prozesuarekin zerikusia duten eskubideak direla. Azpimarratzen da baita ere legediak biktima zehatzetara zuzendurik dagoela, 35/1995 legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza emateari buruzkoa bezala, indarkeria jasan duten emakumeei zuzendua dagoena soilik. Horregatik ikusten da biktimen eskubideak sendotzearen beharra eta europar mailako babes lege orokor baten sorrera. Horretarako 2012/29 Zuzentaraua egin da, testu bakar batean biktimei dagokien babesa, laguntza eta eskubide guztiak jasotzeko.

Beraz, lege berria Zuzentarau honetan oinarrituz saiatu da biktimen egoerari era zabalago batean aurre egiten. Era honetan gizarteak egindako eskakizunetan adierazten duen bezala biktimen beharrei eta laguntzari justizia-prozesu soil bati baino garrantzi handiagoa ematen zaio, eta bermatzen dira biktimen eskubideak naiz gizartearen nahiak.

Lege berri honek ematen du delituaren biktimaren definizio bateratua esanez ez dituela bakarrik zuzeneko biktimak hartzen bere baitan. Lege honek zeharkako biktimak sartzen ditu baita ere definizio horretan. Gainera argitzen da europar mailako legetan; Estatutu honetan ez bezala, zeharkako biktimen egoera bereziak eta biktima hauen eskubideak ageri direla nazioarteko lege desberdinetan eta ez testu bakar batean.

Biktimei ematen zaien arreta eta laguntza lege honekin helburu du oso zabala izatea eta ahalik eta arreta osoena delituen biktimei emateko artzen du bere baitan zigor-prozesuaren kanpoko dimentsioa. Biktimei eskaini nahi zaiena da euren eskubideak bermatzeko erraztasun gehiena, bigarren mailako biktimizazioa eragiten duten ezbeharreko izapideak saihesteko aukera, bere eskubideei buruzko eta zerbitzuei buruzko informazio osoa ematea, gizatasunez tratatuak izatea, eta beraiek aukeratutako pertsonarekin batera egon ahal izatea prozesu osoan zehar. Gainera horri gehitzen zaio, biktimengan egiten diren jarduera guztiak beti tratu indibidualari egokituko direla, eta ebaluatuak izango dira.

Adierazpen honekin esan nahi da biktimenganako laguntza eta errekonozimendua ez direla bakarrik materialak eta ekonomikoak, saiatu nahi da dimentsio morala ere asetzen. Baita atzerritarak diren biktimak izango dituzte eskubide berberak nahiz eta modu legal batean bizi ez.

Azaldutako guztia biktimei arreta integral bat emateko behar beharrezkoa ikusten da. Horretarako erakundeak izan beharko dituzte jardun-protokoloak eta lan egingo dute koordinazio eta lankidetzan prozesuetan. Baita langileak baliatu beharko dira prestakuntza teknikoarekin eta biktimenganako tratu on batean, beraz izan behar dute prestakuntza berezi bat biktimekin harremanetan egoterako orduan.

### III. Legearen edukia: printzipio orokorrak

Hasteko, atariko tituluan ematen du biktimaren kontzeptua bere baitan biktimen kasu guztiak jasotzen. Ematen duen kontzeptuaren arabera ulertzen da delituen biktima bat kalte fisiko, moral edo ekonomikoa jaso duen edozein. Baita atzerritarrak diren biktimak edo legez kanpo bizitzen diren biktimak ere jasotzen ditu. Zuzeneko biktimak nahiz zeharkako biktimak jasotzen dira. Zuzenekoak dira bere baitan delitua jasan dutenak eta zeharkako biktimak zuzeneko biktimaren ezkontidea edo harekin lotuta dagoena, ezkontidearen antzeko maitasun-harremana duen edozeinek, seme-alabak eta gurasoak, zuzeneko familia eta biktimaren kargupean egon zitekeen edozein pertsona eta guraso-ahalaren titularra edo tutoretzaren kargupean daudenak betiere bigarren mailako biktimizazio baten arriskua baldin badago.

Jarraitzeko, delituen biktimen eskubideak aurkezten dira: babes, informazioa, laguntza, arreta, parte-hartze aktiboa zigor-prozesuan, errespetuz tratatuak izatea eta tratu indibiduala eta diskriminazio gabekoa jasotzeko eskubidea dute.

Lehenengo tituluan ematen da biktimen eskubideei buruzko garapena eta informazioa. Biktimei honako hau azaldu behar zaie: nola salatu dezaketen delitua bere eskubideei begira, zein laguntza eta babes zerbitzu dituen eskura, aholkularitza eta babes juridikoa, kalte-ordainak, itzulpen eta interpretazio zerbitzuei buruzko informazioa, biktima atzerritarra bada legalki bizitzeko neurriei buruzko informazioa, Justizia lehen eratzailari buruzko zerbitzuaren informazioa, eta gastu judizialen itzulketari buruzko informazioa. Baita ezagutzeko zigor-prozesuari buruzko zedarriak ere.

Legeak genero indarkeria jasan duten umeei babes eta laguntza berezia eman nahi die, eta dio adingabeak gehiago kontuan izan behar direla.

Bigarrenengo tituluan, azaltzen dira delituen biktimen eskubideak zigor-prozesuaren barruan. Azpimarragarria da, biktimak prozesuan parte hartu izan ez arren aurkaratzeko aukera izatea, baita auzitegien aurrean kalte egin dioten ebazpenak aurkaratzeko aukera ere. Auzian eragin zaizkien kostu eta kalte ordainak jasotzeko eskubidea izango dute, eta euren eskubideak bermatu ahal izateko erraztu nahi zaie doako justiziaren eskuragarritasuna.

Titulu honek dio Estatutuak bitartekaritza eta justizia lehen eratzailari buruzko erreferentziak gainditzan dituela bi zerbitzu horien desberdintasun morala adieraziz eta Estatutuaren bitartez zerbitzu horien jarduera bideratzen konponketa material eta moralak asetzera.

Hirugarren tituluan biktimen babesari eta errekonozimenduari buruz hitz egiten du. Baita biktima espezifiko batzuentzako babes-neurriei buruz ere. Babes-neurriak eraginkorrak izan daitezke saihestu nahi dira errepresalien, larderien, galdeketetan edo testifikazioetan kalte psikikoa eragin duten jardueren edo biktimen duintasuna eraso duten jardueren kaltea. Batez ere hau saihestu nahi da sortu ez dadin bigarren mailako biktimizazioa. Babes-neurri espezifikoek dagokionez hartzen dira biktimaren izaera, delituaren izaera eta egoera, delituak eragindako kaltea eta grabetasuna kalte beratasun bereziko egoeran jartzen dutenean biktima.

Laugarren tituluan jasotzen dira biktimei laguntzeko bulegoen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko xedapen erkide batzuk, eta antolamendua eramango du Gobernuak edo autonomi erkidego bakoitzak. Aipatzen da baita ere administrazioko langileek, operadore juridikoei eta biktimenganako zerbitzuetan lan egiten duten langileek jaso behar izango dutela biktimekin harremanetan egoteko formazio berezia. Baita ere dio biktimei ahal den arretarik onena emateko biktimen arretarako zerbitzuen kooperazioa hobetzea.

Amaitzeko, lege honek adierazten du xedapen gehigarri bat esaten biktimenganako babes eta laguntzarako zerbitzuak hobetzeko zerbitzuen ebaluazioa egingo dela urtero. Ebaluazioa egingo du Justiziako Ministerioak eta ebaluazioaren emaitza publikatua izango

da bere web gunean. Gainera txostena eta ebaluazioa bidaliko die Gobernuak Gorteei egiteko biktimen arretari buruzko hobekuntzak.

#### IV. Oharrak eta kritikak

Estatutuak ez ditu biktima guztiak berdin babesten. Testuak hainbat biktima baztertzen ditu hala nola dira: giza eskubideen urraketa jasan duten biktimak, Frankismoa eta Guardia Zibilararen biktimak, eta tortura eta estatuaren agenteengandik tratatu txarrak jasan dituzten biktimak. Gainera Estatutuak ez dio ekiten biktimen erreparazioari. Aitortzen du konponketaren eskubidea baina ez du garatzen eskubide hori.

Estatutuak ez ditu adingabeak behar bezala babesten, ezta indarkeria-sexuala edo pertsonen salerosketa jasan dutenak. Esan beharra dago atzerritarrei eta legez kanpo bizi diren pertsoneri legearen aplikazioa onartu arren ezin izango zaiela aplikatu Atzerriek buruzko legea eta osasunari buruzko Errege Lege Dekretua aldatu gabe.

Zalantzan jartzen da testua onartua izan den azkartasuna, izan ere ikusi da eztabaida publiko baten beharra. Gainera Estatutua egiteko ez diete ezer galdetu biktimei ez diete ezer galdetu. Terrorismoaren biktimen elkartetik kritikatu da ez dutela testuaren berri izan, eta eskatu arren ez dietela erraztu beraz ezin izan dituzte zuzenketak egin ezta amaierako testuan ere. Baita kritikatu dute terrorismoaren biktimaren kontzepzioa. Ez zaie ondo iruditu biktima hauek bestelako biktimekin konparatzea ez baitira bilatutako biktimak ustekabeko biktimak dira. Terrorismoak helburu oso zehatza du, beldurra sortu eta Estatua makurrarazi.

Amaitzeko, esan beharra dago beharrezkoa dela gizarte-eztabaida gai honi buruz. Azken finean da gizarte osoari eragiten dion legea, eta ez da guztiz islatzen gizartearen ahotsa. Honelako lege bereziak egiterakoan kontuan hartu behar dira sentsibilitate guztiak eta gehiago biktimenak zuzenean eragiten baitie. Lege honen azpiko printzipioak oinarritzen dira interes politikoetan eta ez benetako beharretan. Beraz, lege hau aztertu behar da ikuspuntu kritiko batetik ulertzeko benetako asmoak. Biktimak eta biktimen elkarteak entzun behar dira, beraiek inork baino hobeto baitakite zeintzuk diren biktimen benetako beharrak, eta beraiek gai izan lirarteke legean islatzen biktimen eskariak eta nahiak.

#### Bibliografia

<http://www.mjusticia.gob.es/cs/Satellite>

<http://www.boe.es/boe/dias/2015/04/28/pdfs/BOE-A-2015-4606.pdf>